

ESKUALDE BILERETARAKO INFORMAZIOA / 2015eko urtarrila

1.- Eskola garraioa arautzeko dekretu berria

Orain arte, bi iturri hauek arautzen zuten eskola garraioa:

- Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren zirkular bat, zeinetan zehazten baita eskola garraioari zer irizpide aplikatu behar zaizkion Haur Hezkuntzako bigarren zikloko mailetan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Hezkuntza sailburuaren bi agindu: horietako bat, ikasleen banakako esleipenen deialdiari dagokiona; eta, beste, heziketa behar bereziak dituzten ikasleei buruzkoa.

Azken urteetan, eskola publikoko gurasoen federazioek behin eta berriz eskatu dugu eskola garraiorako arautegi berri bat, eguneratuagoa eta euskal eskola publikoko ikasleen beharrei hobeto egokituko zitzaiena. Ildo horretatik, eta gure eskariak aintzat harturik, 2013ko irailaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak erabaki zuen arautegi berri bat lantzeko eskaria egitea Hezkuntza Sailari. Eskari horri erantzunez, Hezkuntza Sailak iragarri zuen 2014. urtean zehar dekretu berria aurkeztuko zuela ikastetxe publikoetako ikasleen eskola garraioa arautzeko.

Aipatzekoa da, halaber, azken urteetan, bereziki 2013/2014 ikasturtean, Hezkuntza Sailak modu zorrotz eta murriztailean ezarri duela garraioaren arautegia, eta, horren ondorioz, nabarmen murriztu direla ikastetxe publikoetako autobusen eta ibilbideen kopurua; murrizketa horren eraginez, zerbitzu hori erabiltzen duten familien kexa asko eta asko izan dira.

Murrizketen testuinguru horretan, Hezkuntza Sailak dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuen 2014ko azaroaren hasieran. Eta, dekretuaren edukia ikusirik, haren erabat kontra agertu dira gurasoen federazioak, dekretu horrek ez baitakar orain arte aplikatzen zen arautegiarekiko inolako aldaketa esanguratsurik. Dekretuaren zirriborroaren edukia aztertu ondoren, EHIGE Konfederazioak hainbat ekarpen aurkeztu zizkien Hezkuntza Sailari eta Euskadiko Eskola Kontseiluari, kontuan har zitzaten behin betiko dekretua onartu aurretik. Labur azalduta, hauek dira EHIGEn ekarpenak:

- Ez gaude ados zirriborroan planteatutako distantziekin (gaur egungo arautegiak aipatzen dituen berberak dira): 2 km, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, eta DBHko lehen zikloan; eta 4 km, DBHko 2. zikloan. Gure proposamena da trataera berezia ematea Haur Hezkuntzako ikasleei; 2 km-tik beherako distantzia finkatzea Lehen Hezkuntzarako, eta 2 km-koa, Bigarren



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

Hezkuntzarako. Nolanahi ere, kasu orotan aztertu beharko litzateke ikasle bakoitzaren egoera eta ibilbidearen ezaugarriak, proposatutako distantzietan salbuespenak egin ahal izateko.

- Dekretu berriak kanpoan utzi ditu, berriro ere, 2 urteko ikasleak, eta arautegi berriari kontuan hartu daitezkeen proposatzen dugu.
- Landa eremuen eta hiriez kanpoko eremuen izaera berezia kontuan hartzea.
- Udalerriak eskaintza publikorik ez duten ikasleei eskola garraioa erabiltzeko eskubidea aitortzea.
- Dekretu berriari aipatzen den Jarraipen Batzordean parte hartzeko aukera eman diezaguten eskatzen dugu.
- Ez gaude ados dekretu berriak Eskola Maparen 21/2009 dekretuaren zenbait alderdi aldatzearekin.
- Ez gatoz bat garraioa erabiltzeko eskubidea izatearren familiak ikastetxe jakin batera bideratzearekin, beren eragin eremuan ikastetxe publiko bat baino gehiago egonik.
- Eskola garraioa erabiltzeko eskubidea duten ikasle guztiak zerbitzua bermatzea.
- Laguntzaile kopurua igotzea, bereziki DBHko ikasleei dagokienez.
- Eguerdian eskola garraioa bermatzea, baldin eta jangelan behar adina plaza ez badago.
- Heziketa behar bereziak dituzten ikasleei eskola garraioa bermatzea; dekretuan esaten denez, garraiorako kontratatutako enpresaren autobus egokituen erabilgarritasunaren mende egongo da aukera hori.

2014ko abenduaren 9an, Euskadiko Eskola Kontseiluak dekretuaren zirriborroa aztertu zuen, eta irizpen bat eman zuen, Hezkuntza Sailak zenbait aldaketa egin zitzaizkien eskatuz. Gaur egun, oraindik argitaratu gabe dago behin betiko dekretua.

Azaldutako guztiaren arabera, oso litekeena da dekretu berriak gaur egungo arautegia ezer gutxi aldatzea. Eta arautegi hori ezartzeak ikastetxe publikoetan eskaintzen den eskola garraioan murrizketa handiak eragin dituenez, **lan batzorde** bat sortzea planteatzen da, Gipuzkoako eskola garraioaren egoera aztertzeko, familien kexei arreta emateko eta, azken batean, presio neurri bateratuak proposatzeko, zerbitzuan murrizketarik izan ez dadin. Hala, IGEEi dei egiten zaie batzorde horretan modu aktiboan parte hartu dezaten.

2.- HEZKUNTZA SAILAREN HEZIZBERRI 2020 PROIEKTUA. LOMCEren aplikazioa, Euskadin.

2014. urtean zehar, Hezkuntza Sailak aurkeztutako Heziberri 2020 proiektuari buruzko eztabaida egin du Euskadiko hezkuntza komunitatean. Proiektu horren xedea da, Hezkuntza Sailak berak adierazi



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

duenez, *“Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin, etorkizuneko belaunaldiak ongi prestatu egon daitezkeen Euskal Herrian eta munduan bizitzeko.”*

Labur esanda, euskal eredu pedagogikoa eta euskal curriculum berria finkatzea du xede. Bi alderdi horiek abiapuntu hartuta, gainera, Hezkuntzaren Euskal Legea sortzeko asmoa ere badu. Cristina Uriarte sailburuaren aburuz, Heziberri 2020 askoz ere urrunago doa LOMCEren oinarritzko legeditik, euskal hezkuntza sistema hobetzea eta babestea helburu harturik, betiere.

Asmo horiekin bat etor gaitzke, berez, baina nabarmentzekoa da aurrez aurre talka egiten dutela Hezkuntza Sailak aurkeztutako Heziberri 2020 dekretu zirriborroen proposamenen testuarekin, zirriborro horietan argi eta garbi ikusten baita Eusko Jaurlaritzak men egiten diola LOMCEri eta haren funtsezko alderdi zenbait Euskadin aplikatzeko asmoa duela. Aurkeztutako zirriborroek planteatzen duten proposamen pedagogikoa, nahiz eta puntu batzuetan eztabaidagarria izan daitezkeen, interesgarria da, oro har, gaitasunetan oinarrituriko pedagogia eta curriculum garatzen duen heinean. Baina proposamen pedagogiko horrekin batera, LOMCEk gure hezkuntza sistema zentralizatzeko eta kontrolatzeko planteatzen dituen mekanismo berberak jasotzen dituzte dekretuek.

Dekretuen edukia ikusita, EHIGE, BIHE eta SAREAN eskola publikoko elkarteek prentsa ohar bat argitaratu dugu, aditzera emateko Heziberri dekretuek kalte egiten diotela eskola publikoari eta galarazi egiten dutela hezkuntza sistema propio bat eraikitze bidea. Labur esanda, honako puntu hauek aipatzen dira prentsa oharrean:

- Ez gaude ados LOMCE ezartzearekin: dekretuek LOMCEren lehen eta bigarren hezkuntzako egitura eta edukiak kalkatzen dituzte; bi ziklotan banatzen dute lehen Hezkuntza; aniztasunari aurre egiteko baliabideak desagertzen dira, curriculum aniztasunerako programa kasu.
- Ez gaude ados Euskal Hezkuntza Sistemarentzat defendatzen ditugun oinarriak ahazten dituen dekretu curricularren garapenarekin. Ez du sareen arteko ardura partekatua aldeko apusturik egiten, Ikasle bakoitzari ahal bezain eskolaratze egokiena bermatzeko. Ez du jasotzen bikaintasunera ekitatetik abiatzeko oinarritzko printzipioa.
- Ez ditu jasotzen Euskal Eskola Publikoarentzat aurrera egiteko garrantzitsuak diren apustu berritzaileak: hizkuntzen tratamendu integratua, gaur egungo ereduaren sistema gaitzuko duena. Ikastetxe publikoen autonomia eraginkorra gauzatzeko araudia ez da azaltzen.
- Ez dugu uste horren garapen sakona behar denik curriculum doitzeko: desberdintasun handiak daude atalen artean, batzutan gehiegi sakontzen da, beste batzuetan hutsune garrantzitsuak daude eta beste batzuk ez lirateke agertu behar. Egun indarrean dagoen dekretua hobeto doitzen zaie gizartearen eta sistemaren beharrei.
- Ez ditu jasotzen Heziberriren aurreneko fasean egin genituen ekarpenak, hau da eskola publikoa Hezkuntza-sistemaren ardatz egituratzailea izan behar da, Hezkuntza Sistemaren diagnostika eta LOMCEren eragina analisia.

Hori guztia dela eta, EHIGE, SAREAN eta BIHE elkarteek Hezkuntza Sailari eskatzen diogu ez ditzala onartu eduki horiek biltzen dituzten dekretuak eta erretira ditzala.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

Eskola publikoko elkarteek ez ezik, dekretuen zirriborroen kontrako jarrera agertu dute, halaber, hezkuntzako beste eragile batzuek. Une honetan, Hezkuntza Saila eskola komunitateak egindako zuzenketa eta proposamen ugariak aztertzen ari da, eta, beraz, oraindik ez dago behin betiko testurik.

Eta hezkuntza komunitatea HEZIBERRI buruzko eztabaidan murgilduta dabilen bitartean, LOMCEn aplikazioak aurrera jarraitzen du, baita Euskadin ere, eta, hortaz, ezin dugu harekiko arreta galdu. Ildo horretatik, eskola publikoko gurasoen federazioek apustu argia egiten jarraitzen dugu hezkuntza komunitateak LOMCEri aurre egiteko neurriak har ditzan proposatzearen alde. Hain zuzen ere, eskola demokratikoaren aldeko kanpainaren baitan, Erkidegoko 180 ikastetxe publiko baino gehiagotako eskola kontseiluek erabaki dute eskola kontseiluan erabakitzen jarraitzea ikastetxeari dagozkion erabakirik garrantzizkoenak.

Era berean, 2014-2015 ikasturtean LOMCEn aurreikusitako neurri gehiago ezarriko direnez –hala nola, Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketa eta balioen irakasgaia–, ikastetxe publikoetan neurri horiei aurre egiteko eskola kontseiluan hainbat erabaki hartzeko aukera aztertzen ari gara.

3.- Euskal Eskola Publikoaren jaia.

Ekainaren 7an, Euskal Eskola Publikoaren 24. Jaia egingo da, Elgoibarren. Abenduaren 11n egin zen jaiaren jendaurreko aurkezpena (ikus bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=Ch-yjYwEEQM#t=55>).

Badira aste batzuk jaiaren publizitate materiala salgai dagoela (izerditzeko jertseak, elastikoak, mugikorretarako babesgarriak, karpetak...). Salmenta errazteko, Elgoibarko batzordeak salgai jarriko den material guztiaren erakusgarriak prestatu ditu, materiala ikastetxean saltzeko ez ezik, azoka, jaialdi eta abarretan saltzeko ere. IGERen batek materiala salduz jaiari laguntzeko interesik izanez gero, aski du lehenbailehen BAIKARAekin harremanetan jartzea.

Datozen egunetan, jaia iragartzeko kartela igorriko zaie ikastetxeei.

Jaiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, hemen eskura dezakezue:

- Webgunea: <http://www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus>
- Facebook: <https://www.facebook.com/euskaleskola.publikoarenjaia>

Gogorarazi nahi dugu, halaber, ekainaren 14an Eskola Txikien jaia egingo dela, GABIRIAN.

4.- Intereseko beste gai batzuk